



SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

XIV Sagar Uzta 2014 Prentsa oharra

Contacto:

943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com

www.sagardoarenlurraldea.com

Giro bikaina Astigarragako XIV. Sagar Uzta egunean



SagarUztak hamalagarren edizioa bete du aurten tolaretako lanen hasiera ospatzeko eta sagarraren eta sagardoaren kulturen oinarrituriko jarduera ezberdinak izan dira Astigarragako talde eta herritarren laguntzarekin.

Sagarra eta sagardoa protagonistak izan dira gaur Astigarragan. Urtero bezala, Foruen Plazan **sagarraren azoka, sagardo dastaketa** eta **2014 uztako lehen muztioaren elaborazioa** izan dira, tolaean bertan muztioaren usadiozko elaborazio prozesua erakutsi delarik: kirikoketa, pisoiekin sagarra jotzea, txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.



Goizari hasiera emateko, Alorrenea, Astarbe, Gurutzeta, Petritegi, Zapiain eta Zelaia **sagardotegien arteko I. Sagardobide Erronka** izan da Santiagomendiko Sagardo Bidean zehar. Lehia gogorraren ostean, **Astigarragako Petritegi sagardotegia** izan da erronka irabazi duena.

Oso harrera ona izan dute antolatutako beste jarduerak ere: **Idiazabal Gaztaren dastaketan** 40 lagun baino gehiagok parte hartu dute (8-10 urteko haurrak eta helduak) eta jende ugari gerturatu da frontoian ikusgai egon den eta Sagardoetxeak gauzatutako **"Sagardogintza gure baserrietan"** erakusketa ikustera.



Sagar Tarta Lehiaketan 12 parte-hartzailek beren sukaldaritzako dohaiak erakutsi dituzte eta denara 2 sari banatu dira: Astigarragako baserriarren produktuen loteak. Lehendabiziko sariaren irabazlea **Irati Saralegi** izan da eta bigarren

sariaren irabazlea **Amaia Dominguez** izan da.

Bestalde, 15 parte-hartzailek Sagar Uzta jaiko unerik garrantzitsuenen argazkiak atera dituzte **VII. Argazki Rally Digitalean** parte-hartuaz eta urriaren 17an argazki bilduma onenen 2 sari banatuko dira Sagardoetxea Museon.

Honetaz gain, harrena bikaina izan dute aurreko egunetan ospatu diren jarduerak, besteak beste: osteguneko **pintxo-poteak**, ostiraleko **Euskal Herriko sagarraren kata gidatuak** eta larunbateko **"Sagar motak ezagutuz"** mendi-bueltak.